

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

26/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 16koa. Onespena ematea huts materiala zuzentzeari Bernedoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren testu bateginean, Urarteko Baratzeen bidearen zati bat hiri lurzoru sailkatzeari dagokionez

Bernedoko Udalak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Telematikoan 2024ko uztailaren 16ko sarrera data duen ziurtagiri bat bidali zuen, idazkariarena, 2024ko uztailaren 15ean egindako bilkura berezian hartutako Udalbatzaren erabakiari buruzkoa, Arabako Foru Aldundiaren hirigintza organora bidaltzeko. Erabaki horren bidez, onetsi zen huts bat zuzentzea HAPOn, hain zuzen Urarteko Baratzeen bidea hiri lurzoru sailkatzeari buruzkoa, Urarteko Administrazio Batzarrak hala eskatuta.

Bidalitako espedientean, Bernedoko HAPO idatzi duen taldearen txostena dago, zeina egin baitute azaltzeko Urarteko Baratzeen bidearen zati bat zergatik geratu den hiri lurzuruan sartuta eta beste zati bat, berriz, zergatik geratu den lurzoru urbanizagarrian. José Diego Luque Valdiviak sinatu du txostena, taldearen ordezkari gisa. Txostenarekin batera aurkeztu dira hasieran onetsitako Hiri Antolamendurako Planari (HAPO) Urarteko Administrazio Batzarrak egindako 55. alegazioa eta alegazio hori idatzi duen taldearen proposamen-txostena, biak dokumentu erantsi gisa.

Idazketa taldeak adierazi duenez, HAPO jendaurrean jarri zen aldian, Urarteko Administrazio Batzarrak 55 zenbakiarekin identifikatutako alegazio bat aurkeztu zuen, eta bertan eskatzen zen 911, 370, 371 eta 372 lurzatiaren iparraldeko mugaren ondoan dagoen Baratzeen bidea hiri lurzoru sailkatzeko.

Txostenean azaltzen denez, Udalbatzak alegazio hori ebazterakoan, bai ebazpen proposamenean bai Udalbatzak hartutako erabakian, ageriko huts material bat gertatu zen; izan ere, testuan alegazioa baiestea adierazten da, salbuespenik sartu gabe, baina irudikapen grafikoan bidearen zati bat baino ez da aipatzen hiri lurzoru gisa sailkatzeko, eta, horregatik, bidearen mendebaldeko zatia bakarrik geratu zen hiri lurzoru gisa grafiatuta.

Txostenak ondorioztatzen duenez, huts baten ondorioa da 1 poligonoko 370 eta 372 lurzatiaren arteko Baratzeen bidearen zatia lurzoru urbanizaezin sailkatzea, eta, ondorioz, egokia da Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuari eskatzea huts material hori zuzen dezala, Baratzeen Bide osoa hiri lurzoru sailkatuta gera dadin.

Era berean, bidalitako espedientean jasota dago Javier Lizaso López de Aberasturi hirigintza arkitektoaren txostena, Bernedoko Udaleko aholkulari gisa egina, Bernedoko HAPO idatzi duen taldearen txostenaren berri emateko.

Udal arkitektoak, bere txostenean, idazketa taldeak emandako azalpena eta egin nahi den zuzenketa adierazten duen dokumentazio grafikoa jaso ondoren, honako hau adierazi du:

“Ondorioz, egokia da Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuari eskatzea huts material hori zuzen dezala, Baratzeen Bide osoa hiri lurzoru sailkatuta gera dadin.”

HAPOn dokumentazio teknikoari dagokionez, bidalitako espedientean planoak erantsi dira, dagozkien formatuetan, Baratzeen bidearen benetako egoera irudikatzen dutenak, antzemandako huts materiala zuzendu ondoren.

Era berean, bidalitako espedientean jasota dago Bernedoko Udalbatzak 2024ko uztailaren 15ean egindako bilkura berezian hartutako erabakiaren ziurtagiria, idazkariak emana. Erabaki horretan, aho batez onetsi zen Urarteko Administrazio Batzarrak eskatutako zuzenketa, Urarteko 1 poligonoko 370 eta 372 lurzatien artean dagoen Baratzeen bide osoa hiri lurzoru sailkatuta gera dadin.

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren azaroaren 2ko 292/2022 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onetsi zen, zenbait baldintzarekin, Bernedoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra. Eta 2023ko urriaren 6an Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuaren 107/2023 Foru Agindua eman zen, zeinaren bidez betetzat eman baitziren azaroaren 2ko 292/2022 Foru Aginduan ezarritako baldintzak, eta xedatu baitzen ebazpen hori ALHAOn argitaratzeko, hirigintzako araudiarekin batera (ALHAO, 131. zk., 2023ko azaroaren 8koa).

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko honako oinarri hauek:

Aplikatzekoa da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan xedatutakoa; haren arabera: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak."

Aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuta, Bernedoko Udalak bidalitako espediente administratibo eta teknikoan behar bezala justifikatu da indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorren testu bateginean antzemandako huts materiala.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onestea zuzen dadila Bernedoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren testu bateginean antzemandako huts materiala, bat etorri Udalbatzak 2024ko uztailaren 15eko bilkura berezian hartutako erabakiarekin, zeinaren bidez onesten baita Urarteko Administrazio Batzarrak eskatutako zuzenketa, Urarteko 1 poligonoko 370 eta 372 lurzatien artean dagoen Baratzeen bide osoa hiri lurzoru sailkatuta gera dadin.

Bigarrena.- Zuzenketa hori Arabako Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ebazpen hau Bernedoko Udalarari eta Urarteko Administrazio Batzarrari jakinaraztea.

Bosgarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke zuzen-zuzenean EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 16a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA